



Kazetarien Euskal Elkargoak eta Kazetarien Euskal Elkarteak gaitzespen irmoa adierazi dute Ernaiko gazteek El Correo egunkariaren Bilboko instalazioen aurka egindako erasoaren aurrean.

Horrelako ekintzek gure historia hurbileko urterik ilunenetara garamatzate, eta adierazpen-askatasunaren eta informazio-eskubidearen aurkako eraso dira. Hori onartezina da edozein gizarte demokratikotan, aniztasun politiko eta mediatikoaren urraketa larria baita, ezinbestekoa iritzi publiko aske eta anitza bermatzeko.

Kazetaritzaren jarduna presiorik, larderiarik, boikotik edo mehatxurik gabe garatu behar da. Eta indarkeria, edozein modutan, ezin da erabili borroka politiko edo ideologikorako bitarteko gisa.

Horregatik guztiagatik, Kazetarien Euskal Elkargoak eta Kazetarien Euskal Elkarteak elkartasuna eta babesa adierazten diete El Correoko profesionaleri eta beren lana zorroztasunez eta erantzukizunez egiten duten kazetari guztiei, eta prentsa-askatasuna errespetatzeko deia egiten dute, aniztasuna eta bizikidetzaren demokratikoa bermatzeko.

Sin. Zuzendaritza Batzordea

Kazetarien Euskal Elkargoa eta Kazetarien Euskal Elkarteak